

MOZIO ARRUNTA

GI20 SAIHESBIDEKO HERRERAKO TUNELEN SABALETAN DAUDEN IREKIDURAK DIRELA ETA

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, GI-20 saihesbideko Herrerako tunelen sabaletan dauden irekidurak direla eta.

JUSTIFIKAZIOA

Berrogeita hamar urte bete dira Donostiako GI-20 saihesbidea inauguratu zutenetik. Saihesbideak azpian hartu zituen hainbat baserri eta lursail, garai hartan hazten ari zen ibilgailuen joan etorria hiri erditik ateratzeko asmoz. Baina arazo berri bat ere eragin zuen, gaurdaino konpondu gabe jarraitzen duena: saihesbideak Herreran dituen tunelen eta Jose Elozegi etorbidearen artean bi irekidura utzi zituzten, eta horien ondorioz, amiltzeko arriskua, aireko kutsadura eta zarata handiak daude Jose Elozegi etorbideko 120 eta 126 zenbakien artean.

Aipatu bezala, urte asko igaro dira, baina egoerak bere horretan jarraitzen du. Herripe auzo elkarteak idatzia bidali die Donostiako Udaleko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariari, urte horietan guztietan egindako harremanen berri emanda eta gertatu diren istripuak aipatuta, egoera horri irtenbidea emateko eskatzeko. Gainera, auzotarrek salatu dute erakundeak ezikusiarrena egiten ari direla.

Horregatik, EH BILDU udal taldeak honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du:

- 1.- Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari harremanetan jar dadila Jose Elozegi 120. eta 126. zenbakien arteko bizilagunekin, baita Herripe elkartearekin ere, pairatzen ari diren egoeraren berri bertatik bertara ezagutzeko, eta konponbide aukerak elkarrekin aztertzeko.
- 2.- Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari idatz dezala saihesbideak Herreran dituen tunelen eta Jose Elozegi etorbidearen arteko irekidurak ixteko egitasmoa.

Donostian, 2022ko urriaren 6an.